



Noiz eguneratua:  
2023/05/23

# SUAREN ERABILERARI BURUZKO ARAUDIA

baso-suteak prebenitzeko

**Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua**

## AURKIBIDEA

1. Araudia eta AEMETen abisuak .....	4
<b>Nafarroan aplikatzekoak diren arauak.....</b>	<b>4</b>
1. G- Zer araudik arautzen du suaren erabilera Nafarroan?.....	4
2. G- Non kontsulta ditzaket nire dudak? .....	4
<b>AEMETen abisuak.....</b>	<b>4</b>
3. G- Non kontsulta dezaket sute-arrisku oso altua edo muturrekoa dagoen?.....	4
<b>Debekuak Meteorologiako Estatu Agentziak (AEMET) sute-arrisku oso altu edo muturrekoaren abisua ematen duenean .....</b>	<b>5</b>
4. G- Nire udalerrian sute-arrisku oso altuaren edo muturrekoaren adierazlea aktibatuta badago, zer debeku dago? .....	5
2. Prebentzio neurriak udan (ekainaren 1etik irailaren 30era) .....	6
<b>Zonifikazioa .....</b>	<b>6</b>
5. G- Suaren erabilerari buruzko araudiak zer eremu ezartzen ditu Nafarroan? .....	6
<b>Aisialdiko jarduerak .....</b>	<b>6</b>
6. G- Egin dezaket barbakoa motako surik toki irekietan, adibidez, aisialdiko baratzeetan?.....	6
7. G- Sua erabiltzen ahal da erromerietan? .....	7
8. G- Erabiltzen ahal dira kanpineko su txikiak eta gasezko sukaldeak zeharkaldietan?.....	7
9. G- Suak egiten ahal dira?.....	8
<b>Erlezaintza.....</b>	<b>8</b>
10. G- Erabiltzen ahal dira ke-hauspoak erlezaintzako lanetan? .....	8
<b>Erreketak.....</b>	<b>8</b>
11. G- Zer erreketak egiten ahal dira nekazaritza- eta baso-lurretan? .....	8
<b>Ibilgailuen zirkulazioa .....</b>	<b>9</b>
12. G- Zirkulatzen ahal dute ibilgailu motordunek mendiko pistetan eta beste landabide batzuetan? .....	9
13. G- Badut aisialdiko baratze bat; autoz joan naiteke?.....	10
<b>Material piroteknikoa, puxikak edo suzko artefaktuak. ....</b>	<b>10</b>
14. G- Erabiltzen ahal da material piroteknikorik?.....	10
15. G- Festa bat ospatuko dut. Erabil ditzaket puxikak, faroltxo hegalaria, suziriak edo petardoak? .....	11
<b>Beste batzuk.....</b>	<b>11</b>
16. G- Egiten ahal da aire zabaleko kontzerturik lur-eremu urbanizaezinean? Zer babes-neurri hartu behar dira suteen kontra? .....	11
17. G- Kanpamenturik egiten ahal da lur-eremu urbanizaezinean, sute-arrisku oso altuaren edo muturrekoaren abisua dagoenean? .....	12
3. Prebentzio-neurriak udatik kanpo (urriaren 1etik maiatzaren 31ra)... ..	13

<b>Aisialdiko jarduerak.....</b>	<b>13</b>
18. G- Egin dezaket barbakoa motako surik edo kanpin-gasa erabili?.....	13
19. G- Egiten ahal da surik lurrean? .....	13
<b>Erreketak.....</b>	<b>13</b>
20. G- Zer erreketak egiten ahal dira nekazaritza- eta baso-lurretan? .....	13
<b>4. Makina eta ekipo arriskugarriak erabiltzea lurzoru urbanizaezinean.....</b>	<b>15</b>
<b>Alderdi orokorrak makinak eta meteoalarten inguruan .....</b>	<b>15</b>
21. G- Zein makina eta ekipo mota jotzen dira arriskugarritzat? .....	15
22. G- Bada baimenik txinpartak, deskargak edo deflagrazioak eragin ditzaketen makinak eta ekipoak erabiltzeko? .....	16
23. G- Meteoalertak aktibatzeke, nola ezartzen dira muturreko tenperatura maximoen maila-atalaseak? .....	16
24. G- Non kontsulta daitezke sute-arriskuen abisuak eta meteoalertak? .....	17
<b>Nekazaritzako makinak .....</b>	<b>17</b>
25. G- Noiz erabil ditzaket nekazaritzako makina eta ekipo arriskugarriak? .....	17
<b>Basogintzako makinak.....</b>	<b>17</b>
26. G- Noiz erabil ditzaket basogintzako makina eta ekipo arriskugarriak? .....	17
<b>Obra zibileko meatzaritza eta beste lan batzuetarako makinak.....</b>	<b>17</b>
27. G- Noiz erabil ditzaket obra zibileko, meatzaritzako eta beste lan batzuetarako makina eta ekipo arriskugarriak? .....	17

## 1. Araudia eta AEMETen abisuak

---

### Nafarroan aplikatzekoak diren arauak

#### 1. G- Zer araudik arautzen du suaren erabilera Nafarroan?

E-

- [222/2016 Foru Agindua, ekainaren 16koa, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak emana, sua lurzoru urbanizaezinean nola erabili arautzen duena, oihaneko suteak prebenitzeko.](#)
- Gainera, kontuan izan behar dira Estatuko araudiak ezarritako **debekuak**, Meteorologiako Estatu Agentziak sute-arrisku oso altuaren edo muturrekoaren adierazlea aktibatzen duenean.
  - [15/2022 Errege Lege-dekretua, abuztuaren 1ekoa, presako zenbait neurri hartzen dituena baso-suteen alorrean.](#)

#### 2. G- Non kontsulta ditzaket nire dudak?

E- Zure dudak kontsulta ditzakezu Ingurumen Zentralaren 646594948 telefonoan, 08:00etatik 22:00ak arte, urteko 365 egunetan, eta helbide elektronikoa honetan: [centralmedioambiente@navarra.es](mailto:centralmedioambiente@navarra.es)

### AEMETen abisuak

#### 3. G- Non kontsulta dezaket sute-arrisku oso altua edo muturrekoa dagoen?

E- AEMETek sute-arriskuaren abisuak honela sailkatzen ditu: moderatua, baxua, altua, oso altua edo muturrekoa.

Hemen kontsulta daiteke:

- **Meteorologiako Estatu Agentziaren (AEMET)** orrian.

Adierazlea **eguneko** aktibatzen da, eta Nafarroako zonaldearen arabera ikus daiteke. Aurreikusita dago AEMETek **udalerrika** zehaztuko duela.

**Debekuak Meteorologiako Estatu Agentziak (AEMET) sute-arrisku oso altu edo muturrekoaren abisua ematen duenean**

**4. G- Nire udalerrian sute-arrisku oso altuaren edo muturrekoaren adierazlea aktibatuta badago, zer debeku dago?**

**E-Honako hauek:**

**Hiri-lurzorutik kanpo, debeku da:**

- Sua piztea mota guztietako toki irekietan.
- Erreketak egitea, aurretik baimendurik egon arren.
- Sua piztea errepide-sareko atsedenguneetan, jolas-eremuetan eta kanpatzeko eremuetan, baita horretarako prestatutako guneeetan ere.
- Makinak eta ekipoak erabiltzea, baldin deflagrazioa, txinpartak edo deskarga elektrikoak eragiten badituzte, salbu eta baimendurik badaude.
- Material piroteknikoa erabiltzea.
- Erretzen ari den edo sutea sortzeko ahalmena duen edozer botatzea edo uztea.

## 2. Prebentzio neurriak udan (ekainaren 1etik irailaren 30era)

---

Neurri hauek **indarrean egonen dira ekainaren 1etik irailaren 30era bitarte, biak barne.**

Sua erabiltzeko baimenak **etenik** geldituko dira Meteorologiako Estatu Agentziak **sute-arrisku oso altuaren edo muturrekoaren** abisua aktibatzen duenean.

### Zonifikazioa

#### 5. G- Suaren erabilerari buruzko araudiak zer eremu ezartzen ditu Nafarroan?

**E-** Nafarroan bi eremu geografiko ezarri dira: **Iparraldea eta hegoaldea**

- Iparraldearen eta hegoaldearen arteko banalerroa izanen da toki-erakunde hauen hegoaldeko mugak eraturikoa: Ameskoako Limitaciones, Urbasa, Andia, Goñerri, Ollaran, Arakil, Irurtzun, Imotz, Atetz, Odieta, Anue, Iragi, Eugi, Zilbeti, Lintzoain, Bizkarreta, Mezkiritz, Aurizberri, Auritz, Garralda, Orotz-Betelu, Garaioa, Abaurrepea, Abaurregaina, Jaurrieta, Espartza, Bidankoze, Erronkari eta Garde.

### Aisialdiko jarduerak

#### 6. G- Egin dezaket barbakoa motako surik toki irekietan, adibidez, aisialdiko baratzeetan?

**E- Bai**, hiri-lurzoruan, udal-araudiak horretarako aukera ematen badu.

**Ez**, lur-eremu urbanizaezinean badaude eta sute-arrisku oso altuaren edo muturrekoaren abisua aktibatuta badago.

Ez badago aktibatuta sute-arrisku oso altuaren edo muturrekoaren abisua, Nafarroako iparraldea eta hegoaldea bereizten dira.

### **Nafarroako hegoaldean:**

- Kanpin kategoriako hotel-establezimenduetatik kanpo, **debeku da toki irekietan sua erabiltzea** aisialdirako, baita horretarako egokitutako lekuetan ere, hala nola barbakoetan edo kanpoko beste edozein instalaziotan eta komunikabideen ondoko atsedenguneetan. Debeku horren barnean sartzen dira beroa edo sua sortzen duten tresna guztiak, hala nola kanpin-gasak eta abar.
- Kanpin kategoriako hotel-establezimenduetan, sua aisialdirako erabiltzen ahalko da, betiere horretarako egokitutako eremu bat badute eta sua itzaltzeko ekipoak badituzte (ura, ur-aparrezko su-itzalgailuak, etab.).

### **Nafarroako iparraldean:**

- Sua aisialdirako erabiltzen ahal da toki irekietan, baina horretarako egokitutako lekuetan soilik, hala nola barbakoetan edo kanpoko beste edozein instalaziotan eta komunikabideen ondoko atsedenguneetan.

## **7. G- Sua erabiltzen ahal da erromerietan?**

**E- Ez**, sute-arrisku oso altuaren edo muturrekoaren adierazlea aktibatuta badago.

**Bai, ez badago aktibatuta** adierazle hori eta [erromeria eginen dela jakinarazi bazaio](#) Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko Basoen eta Ehizaren Zerbitzuari, hura egin baino hilabete lehenago, aplikatzekoak diren prebentzio neurriak aplikaturik.

## **8. G- Erabiltzen ahal dira kanpineko su txikiak eta gasezko sukaldeak zeharkaldietan?**

**E- Ez**, sute-arrisku oso altuaren edo muturrekoaren adierazlea aktibatuta badago.

**Bai, ez badago aktibatuta** sute-arrisku oso altuaren edo muturrekoaren abisua:

- **Hegoaldean debeku da** elementu horiek erabiltzea.
- **Iparraldean**, horretarako egokitutako tokietan soilik dago baimendurik, hala nola barbakoetan edo kanpoko beste edozein instalaziotan eta komunikabideen ondoko atsedenguneetan.

## 9. G- Suak egiten ahal dira?

**E- Ez**

Sua lurrean erabiltzea urte osoan dago debekaturik.

## Erlezaintza

## 10. G- Erabiltzen ahal dira ke-hauspoak erlezaintzako lanetan?

**E- Ez**, sute-arrisku oso altuaren edo muturrekoaren adierazlea aktibatuta badago.

**Bai, ez badago aktibatuta** sute-arrisku oso altuaren edo muturrekoaren abisua:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko Basoen eta Ehizaren Zerbitzuaren baimenarekin.

- Baimena etenik geldituko da sute-arrisku oso altuaren edo muturrekoaren abisua dagoenean. Halakoetan, ezinbesteko kasuren bat gertatzen bada erlauntzak zaindu, mantendu eta iraunarazteari loturik, Basoen eta Ehizaren Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio, balora dezan.

## Erreketak

## 11. G- Zer erreketak egiten ahal dira nekazaritza- eta baso-lurretan?

**E-** Baimendutako erreketak motak eta bakoitzak behar dituen izapideak hemen jasotzen dira: [222/2016 Foru Agindua, ekainaren 16koa, ingurumen arloko eskumena duen kontseilariak emana, sua lurzoru urbanizaezinean nola erabili arautzen duena, oihaneko suteak prebenitzeko.](#)

Kontsulta egin ditzakezu Ingurumen Zentralaren 646594948 telefonoan, 08:00etatik 22:00ak arte, urteko 365 egunetan, eta helbide elektronikoa honetan: [centralmedioambiente@navarra.es](mailto:centralmedioambiente@navarra.es)

AEMETek ematen badu **sute-arrisku oso altuaren edo muturrekoaren abisua, etenik gelditzen dira** erreketak egiteko baimen guztiak.



## Ibilgailuen zirkulazioa

### **12. G- Zirkulatzen ahal dute ibilgailu motordunek mendiko pistetan eta beste landabide batzuetan?**

**E- Nafarroa osoan dago debekatuta** ibilgailu motordunak landan barna ibiltzea, errepideetatik kanpo edo bi metrotik beherako zabalera duten landabideetan barna, suebakietan barna edo zura ateratzeko bideetan barna.

**Ez dago baimendurik, orobat,** beste bide edo mendiko pista batzuetan zirkulatzea, Administrazioak berariaz debekatu badu, nahiz eta bi metrotik gorako zabalera izan, esaterako, naturaguneetan.

Era berean, **ez da zilegi zirkulatzea,** baldin **toki-erakundeek** hala ezarrita badute beren ordenantzen esparruan.

**Nolanahi ere, muturreko** baso-sutearen arriskuaren abisua dagoenean, **debeku izanen da ibilgailu motordunak ibiltzea mendiko pista guztietan eta beste landabide batzuetan** barna, ibilgailu hauek salbuetsita:

- a) Administrazio publikoetako edozeinen ibilgailu ofizialak.
- b) Administrazio publikoei egiten zaizkien kontratu-prestazioetarako ibilgailuak, mendiko pistetan eta beste landabide batzuetan zirkulatu beharra dutenak.
- c) Ur eta hondakinen mankomunitateen ibilgailuak.
- d) Obra zibileko eta azpiegituretako eraikuntza- edo mantentze-lanetan erabiltzen diren ibilgailuak, lan horiek legez baimenduta badaude.
- e) Nor bere jabetzara sartu ahal izateko erabiltzen diren ibilgailuak.
- f) Ehizaren eta arrantzaren arauzko jardunean erabiltzen diren ibilgailuak.
- g) Onddo barrutietako kide edo bazkideek erabiltzen dituzten ibilgailuak, ziza eta onddo denboraldian. Horretarako, barrutiaren titularrak emandako egiaztagiria izan beharko dute.
- h) Turismoaren arloan, merkataritza jardueren arauzko jardunean erabiltzen diren ibilgailuak.

- i) Baimenduta dauden ikuskizun publiko eta josteta jardueretan laguntzen duten ibilgailuak. Horren barnean sartzen dira Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak antolatutako eta baimendutako kanpaldietan laguntzen dutenak.
- j) Bainatzeko egokitutako eremuetara doazen erabiltzaileen ibilgailuak, horretarako propio egokitutako aparkalekuetaraino, betiere dagokion sasoian eta Nafarroako Foru Komunitateko bainurako eremuen zentsu ofizialaren arabera.
- k) Aparkatzeko egokitutako eremuen erabiltzaileen ibilgailuak.
- l) Nekazaritzako, abeltzaintzako, basogintzako, meatzaritzako edo harrobietako lanetan eta obra zibileko eta azpiegituretako lanetan erabiltzen diren ibilgailuak.

Ibilgailu horiek landaretzarik gabeko eremuetan baizik ezin izanen dira aparkatu, eta trafikoa oztopatu gabe. Gainera, hauek izan beharko dituzte:

–Telefono mugikorra.

–Sua itzaltzeko urrezko ekipo eramangarria (gutxienez 9 litroko edukiera duen su-itzalgailu hidrikoa edota sulfatagailua, bizkarreko itzalgailua, gutxienez 15 litroko edukiera duena).

### **13. G- Badut aisialdiko baratze bat; autoz joan naiteke?**

**E- Bai**, eta muturreko sute-arriskua egonez gero, honako hauek eraman beharko dituzu:

–Telefono mugikorra.

–Sua itzaltzeko urrezko ekipo eramangarria (gutxienez 9 litroko edukiera duen su-itzalgailu hidrikoa edota sulfatagailua, bizkarreko itzalgailua, gutxienez 15 litroko edukiera duena).

### **Material piroteknikoa, puxikak edo suzko artefaktuak.**

### **14. G- Erabiltzen ahal da material piroteknikorik?**

**E- Debeku da material piroteknikoa sartzea eta erabiltzea **sute-arrisku oso altuaren edo muturrekoaren abisua dagoenean.****

Lurzoru urbanizaezin guztian.

- a) Hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian, jaurtiketa puntua 400 metrora baino gutxiagora badago zuhaitz, zuhaixka, sasi edo belarkiz estalitako lurretatik (larreak edo belardiak eta laborantzaren berezko landaredia dutenak barne, besteak beste).

**Ez badago sute-arrisku oso altuaren edo muturrekoaren abisurik,** ikuskizun piroteknikoak sustatzen dituzten entitate eta pertsonak 112 SOS Nafarroari jakinarazi beharko dizkiote jarduera hori eginen duten eguna eta tokia gutxienez astebete lehenago, baldin eta, lurzoruaren sailkapena edozein izanik ere, haien jaurtiketa puntua 400 metrora baino gutxiagora badago zuhaitz, zuhaixka, sasi edo belarkiz estalitako lurretatik (larreak edo belardiak eta laborantzaren berezko landaredia dutenak barne, besteak beste).

Ikuskizuna gauzatzen den bitartean, nahitaez neurri hauek bete beharko dira:

- a) Edozein su edo su-aztarna ikusiz gero, 112 SOS Nafarroari eman beharko zaio abisua ahalik lasterrena.
- b) Jarduera egiten den lekuan, entitate antolatzaileak gutxienez hiru pertsona izanen ditu sua jotzekoekin, edo sua itzaltzeko beste tresna batzuekin, eta bizkarreko itzulgailuekin.

Era horretako ikuskizunak bertan behera uzten ahalko dira, ingurumenaren arloan eskumena duen zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez, kontrako baldintza meteorologikoak aintzat hartuta.

### **15. G- Festa bat ospatuko dut. Erabil ditzaket puxikak, faroltxo hegalaria, suziriak edo petardoak?**

**E- Ez,** debeku da lurzoru urbanizaezinean.

### **Beste batzuk**

### **16. G- Egiten ahal da aire zabaleko kontzerturik lur-eremu urbanizaezinean? Zer babes-neurri hartu behar dira suteen kontra?**

**E- Bai.**

Lurzoru urbanizaezinean egiten diren kontzertuek edo beste kultura-jarduera batzuek, baso-lurzorutik 400 metrora baino gutxiagora egiten badira, ohiko baimen guztiak izan beharko dituzte eta behar diren bitartekoak ezarri, edozein sute-hasiera itzaltzeko, baldin halakorik gertatzen bada haien jardueraren ondorioz. Bitarteko horien artean egonen dira komunikazio sistema nahikoak eta egokiak.

**17. G- Kanpamenturik egiten ahal da lur-eremu urbanizaezinean, sute-arrisku oso altuaren edo muturrekoaren abisua dagoenean?**

**E- Bai.**

Dena dela, mugak daude sua edo beroa sortzeko elementuak erabiltzeko; esaterako, debeku da aire zabalean gasezko sukaldeak erabiltzea, sua piztea eta abar. Gainera, behar diren bitartekoak eduki beharko dira, edozein sute-hasiera itzaltzeko, baldin halakorik gertatzen bada haien jardueraren ondorioz. Bitarteko horien artean egonen dira komunikazio sistema nahikoak eta egokiak.

### **3. Prebentzio-neurriak udatik kanpo (urriaren 1etik maiatzaren 31ra)**

---

Neurri hauek **indarrean egonen dira urriaren 1etik maiatzaren 31ra bitarte, biak barne.**

- Honako hauei dagozkien debekuak eta neurriak:
  - Ibilgailuen zirkulazioa mendiko pistetan eta beste landabide batzuetan; ikus 12. galdera.
  - Material piroteknikoa erabiltzea; ikus 14. galdera.
  - Faroltxoak; ikus 15. galdera.

Udarako ezarritako berberak dira.

- Ez da baimenik beharko ke-hauspoak erabiltzeko erlezaintzako lanetan.
- Sua erabiltzeko baimen guztiak **etenik** geldituko dira Meteorologiako Estatu Agentziak sute-arrisku oso altuaren edo muturrekoaren abisua aktibatzen duenean.

#### **Aisialdiko jarduerak**

##### **18. G- Egin dezaket barbako motako surik edo kanpin-gasa erabili?**

**E-** Sua aisialdirako erabil daiteke bai hegoaldean, bai iparraldean, horretarako egokitutako tokietan, egoera onean baldin badaude, baina beharrezko neurri guztiak hartu beharko dira sute-arriskurik ez izateko.

##### **19. G- Egiten ahal da surik lurtean?**

**E- Ez**

Sua lurtean erabiltzea urte osoan dago debekaturik.

#### **Erreketak**

##### **20. G- Zer erreketak egiten ahal dira nekazaritza- eta baso-lurtean?**

**E-** Baimendutako erreketak motak eta bakoitzak behar dituen izapideak hemen jasotzen dira: [222/2016 Foru Agindua, ekainaren 16koa, ingurumen arloko eskumena duen kontseilariak emana, sua lurzoru urbanizaezinean nola erabili arautzen duena, oihaneko suteak prebenitzeko.](#)

Kontsulta egin ditzakezu Ingurumen Zentralaren 646594948 telefonoan, 08:00etatik 22:00ak arte, urteko 365 egunetan.

AEMETek ematen badu **sute-arrisku oso altuaren edo muturrekoaren abisua, etenik gelditzen dira** erreketak egiteko baimen guztiak.

## 4. Makina eta ekipo arriskugarriak erabiltzea lurzoru urbanizaezinean

---

Neurri horiek **urte osoan egonen dira indarrean**, AEMETek **sute-arrisku oso altuaren edo muturrekoaren** abisua ematen duen aldiro.

### **Alderdi orokorrak makinaren eta meteoalarten inguruan**

#### **21. G- Zein makina eta ekipo mota jotzen dira arriskugarritzat?**

**E-** Funtzionatzean deflagrazioa, txinpartak edo deskarga elektrikoak eragiten dituzten makinak eta ekipoak, lur-eremu urbanizaezinean erabiltzen direnean.

Honako hauek **ez dira makina arriskugarritzat hartzen**:

1. Traktoreak (ibilgailua).
2. Ongarritzeko makinak.
3. Tratamendu fitosanitarioetarako ekipoak.
4. Barazkiak biltzeko makinak (tomatea, piperra, orburua, aza, brokolia, erromaneskoa, errefauak, azalorea, borraja, alberjina, kardua, baratxuria, tipula eta porrua, lekak, ziazerbak, ilarrak, baba berdea, arto gozoa, etab.) izozteko, berdetan eta kontserbetarako.
5. Artoa eta alpapa biltzeko makinak, presio bidezko ureztalurretan.
6. Mahatsa biltzeko makinak.
7. Ereiteko eta landatzeko makinak.
8. Zamatzeko eta garraiatzeko makinak.
9. Ibilgailu partikularrak lursailera sartzeko, laborearen gainbegiratzeko edo behar diren mantentze-lanak egiteko.
10. Motoponpak.

## **22. G- Bada baimenik txinpartak, deskargak edo deflagrazioak eragin ditzaketen makinak eta ekipoak erabiltzeko?**

**E- Bai,** [baimenak](#) ezarri dira sute-arriskua sortzen duten makinak eta ekipoak erabiltzeko; horretarako, kontuan izan da ea, sute-arrisku oso altuaren edo muturrekoaren abisuarekin batera, muturreko tenperatura maximoen meteoalertak ere gertatzen diren (horiek ere AEMETek ematen ditu).

Kasu horiek hemen azaltzen dira:

- 25. galdera, nekazaritzako makinak eta ekipoak.
- 26. galdera, basogintzako makinak eta ekipoak.
- 27. galdera, obra zibileko, meatzaritzako edo beste lan batzuetarako makinak eta ekipoak.

## **23. G- Meteoalertak aktibatzeko, nola ezartzen dira muturreko tenperatura maximoen maila-atalaseak?**

**E- [Meteorologiako Estatu Agentziak](#)** ezartzen ditu. Nafarroako Foru Komunitaterako, honako abisu maila hauek ezartzen dira:

### **Maila gorriko meteoalerta:**

- 42 graduko edo gehiagoko tenperatura Nafarroako Kantauriko Isurialdean, Nafarroako Erdialdean eta Nafarroako Ebroko Erriberan.
- 40 graduko tenperatura Nafarroako Pirinioetan.

### **Maila laranja meteoalerta:**

- 39 graduko edo gehiagoko tenperatura Nafarroako Kantauriko Isurialdean, Nafarroako Erdialdean eta Nafarroako Ebroko Erriberan.
- 37 graduko tenperatura Nafarroako Pirinioetan.

### **Maila hori meteoalerta:**

- 36 graduko edo gehiagoko tenperatura Nafarroako Kantauriko Isurialdean, Nafarroako Erdialdean eta Nafarroako Ebroko Erriberan.
- 34 graduko tenperatura Nafarroako Pirinioetan.

Balio horien azpitik, baso-sutearen arrisku maila oso altua edo muturrekoa izatera irits badaiteke ere, ez da ezartzen muturreko tenperatura maximoen abisu edo meteoalertarik.



## **24. G- Non kontsulta daitezke sute-arriskuen abisuak eta meteoalertak?**

**E-** Egunero begiratu behar dira AEMETen webgunean

[Sute-arriskua](#)

[Tenperaturen meteoalerta](#). Orobat, APP ofiziala deskarga daiteke: "El tiempo de AEMET". Arrisku-mailaren arabera jakinarazpenak ematen ditu fenomeno atmosferikoen inguruan, tenperatura maximoak barne.  
<https://www.aemet.es/es/app/eltempodeAEMET>

## **Nekazaritzako makinak**

### **25. G- Noiz erabil ditzaket nekazaritzako makina eta ekipo arriskugarriak?**

**E- Ezin** izanen da erabili horrelako makinarik meteoalerta maila gorrikoa bada.

Maila laranja edo hori edo bada, edo ez badago abisurik, makina eta ekipo arriskugarriak erabiltzen ahalko dira, [esteka](#) honetan ezarritako kasu eta baldintzetan, nekazaritzako lan motaren arabera.

## **Basogintzako makinak**

### **26. G- Noiz erabil ditzaket basogintzako makina eta ekipo arriskugarriak?**

**E- Ezin** izanen da erabili horrelako makinarik meteoalerta maila gorrikoa bada.

Maila laranja edo hori edo bada, edo ez badago abisurik, makina eta ekipo arriskugarriak erabiltzen ahalko dira, [esteka](#) honetan ezarritako kasu eta baldintzetan, basogintzako lan motaren arabera.

## **Obra zibileko meatzaritza eta beste lan batzuetarako makinak**

### **27. G- Noiz erabil ditzaket obra zibileko, meatzaritzako eta beste lan batzuetarako makina eta ekipo arriskugarriak?**

**E- Ezin** izanen da erabili horrelako makinarik meteoalerta maila gorrikoa bada. Maila laranja edo hori edo bada, edo ez badago abisurik, makina eta ekipo arriskugarriak erabiltzen ahalko dira, [esteka](#) honetan ezarritako kasu eta baldintzetan, lan motaren arabera.

